

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Eskualdeko odol emaileen bilkura, Urnietan

Aitortza egingo diete Andoaingo, Urnietako eta eskualdeko odol-emaileei. Ekitaldia lagunarteko bazkariarekin amaituko da / 2-3

UZTARRIA

Erraldoi eta buruhandien kalejira

Europako ondarearen jardunaldiekin bat eginez, Andoaingo konpartsa larunbat arratsaldean kalejiran aterako da. Goikoplazatik abiatuta, 17:00tan hasita. / 16



Joxerramon Jauregi urnietarra, Euskal Herriko azken aizkoragilea / 8-9



Zanpatuz taldeak mendi bizikleta irteera antolatu du Leitizaran eta Berastegi aldera / 13

ORDU ALDAKETA
Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko 03:00tan, 02:00ak izango dira.

Udal agintaldiaren hasierako balorazioa egin dute Urnietan ordezkaritza duten hiru alderdiek / 7

ONDAREA PLAZARA!

Famili eta lagun giroan Andoaingo Konpartsa ezagutzeko aukera paregabea!

URRIAK 26, LARUNBATA 17:00 - GOIKOPLAZAN

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2019

ANDOAINO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA

HERRIKO ONDAREAREN ISILU

17:00etan, Goikoplazan, angietorria eta aurkezpena. Ondoren, Konpartsa Kalejiran abiatuko da geldialdiak eginaz Buruhandien pertsonaiak ezagutzen joan gaituzen: Juanita Alkain plazan, Zubiaurren, eta Zumea plazan. Ikuskizuna bertan amaituko da.

Logo of the Basque Government and the European Union.



Izaskun Miner, Begoña Vicente eta Joxe Mari Tolosa Urnietako San Juan plazan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN/URNIETA

Andoain, Urnieta, Tolosaldea eta Beterri-Buruntzako odol emaileak bilduko dira, Urnietako Oianume jatetxean igande honetan ospatuko den ekitaldian.

Bazkariaren aurretik 25, 75, 80, 100 eta gehiagotan odola eman duten emakumezkoak eta gizonezkoak nabarmenduko dituzte, eta erakutsi duten eskuzabaltasunagatik dominak zein ikurrak eskainiko zaizkie. Horien artean nabarmendu behar dira Begoña Vicente eta Joxe Mari Tolosa. 116 alditan eman du odola Vicente, eta 102 alditan Tolosak.

Ez dira edonolako markak, apenas baitago kopuru handi horretara iritsi den odol emailearik. Borondateaz gain, osasunak ere lagundu behar dio emaileari. Begoña Vicentek eginda ditu kalkuluak: “Giza gorputza zazpi litro odolekin osatzen dela jakinda, nire gorputz osoaren odol bolumena hamabost bat aldiz emango nuen jada”. Joxe Mari Tolosak, ondotik, umorea erabili du: “Odol putzu ederra kendu digute dagoeneko”.

Biek ere pozik daude igandean aitoritza jaso dutelako, baina argi utzi dute odola ematen duen

Odol emaileen egun handia

Eskualdeko odol emaileek euren eguna ospatuko dute Urnietan, igande honetan. Odol emate kopuru jakinak egin dituzten herritarrak omenduko dituzte. Tartean dira Begoña Vicente urnietarra eta Joxe Mari Tolosa andoaindarra

pertsonak ez doazela aitormen publikoari bila: “Geure buruarekin eta gizartearekin hartzen dugun konpromiso pertsonalarekin zintzo jokatzeko saiatzeko gara, ez besterik”.

Odol emaile bakoitzak bere arrazoiak edukiko ditu, odol emaile izateko hartutako erabakia. Begoña Vicente legeari begira egon zen pausoa noiz eman jakiteko: “Oso gaztetatik, 18 urte betetzen nitueneko, ilusio bikoitza nuen: batetik, gida baimena ateratzea, eta bestetik, odol emaile izatea. Urteak bete bezain

pronto Urnietara etortzen zen unitate mugikorrera hurbildu nintzen, baina atzera bota ninduten, hemoglobina maila nahikoa ez edukitzeagatik. Hurrengo urtean berriro saiatu, eta orduan hasi nintzen ematen. Hura izan zen poza niretzat!”.

Joxe Mari Tolosaren kasuan, etxean gertu-gertutik ikusitakoak animatu zuen odol emaile izatera: “1978an, hor nonbait, erizainak erauzketak egitera etorri ziren lantokira; lankide batek animatuta, behin edo behin eman nuen. Baina orduan ez neukan

kontzientzia handirik, egia esanda. Lantokiz aldatzea egokitu zitzaidan, eta erizainak azaltzen ez zirenez, bada utzi egun nuen. Ahaztuta eduki nuen zeregin hori. 1991n, ordea, senide bat gaixorik zegoela, odola sartu zioten. Eta horren testigu izan nintzen. Orduan piztu zitzaidan odola emateko grina, zeinen premiazkoa izan daitekeen jabetu nintzelako. Hurrengo hiletik aurrera, Andoaingo anbulatorioa hurbildu nintzen, gaur arte.

Urtean lau txandatan odola ematen dut, hutsik egin gabe.

Osasuna lagun izan dut urte horietan, ez gaixotasun larriarik, ez botiken menpeko tratamendurik... Eta horri esker gainditu ahal izan dut ehuneko kopurua”.

Izaskun Minerrek 35 urte daramatza Urnietako odol emaileen elkartean, sustatzaile gisa. “Herriko zenbait odol emaileek bilera batera gonbidatu gintuzten. Donostiara joan behar izaten zuten odola ematera, eta Urnietan bertan haiekin batera elkarte sortzea proposatu ziguten. Horrela murgildu nintzen mundu horretan. Urteen poderioz, batzuk utzi egin dute elkarte, beste batzuk sartu dira... Manoli Sorondok eta biok jarraitzen dugu, hasierako talde hartatik. Nik, adinagatik, jada ezin dut odolik eman”.

Aferesia, zer da?

Zenbait baldintza bete behar izaten ditu odol emaile izan nahi duen pertsonak. Horien artean, adin jakin bat edukitzea (18 urtetik 70 urtera arte), gaixotasunik ez edukitzea, medikaziork ez jasotzea, bidaia bereziren bat egiteko txertorik hartu ez izana edo azken hilabeteetan tatuajea egin ez izana...

Urtean, gizonezkoek gehienez lau alditan eman dezakete, eta hirutan emakumeek.

Azken baldintza hori kontuan hartuta, itxura batean behintzat harrigarria egiten da zenbat odol erauzketa egin dizkioten Begoña Vicenteri. Berak eman digu datu hori ulertzeko beharrezkoa den azalpena: “2004an, aferesiaren berri eman zidaten, eta harrezkero 72 erauzketa egin dizkirate. Zer den aferesia? Odola ateratzen dizute, baina odol hori hirutan frakzionatzen dute: globulu gorriak, plaketak, plasma. Aldi bakoitzean ospitaletan dauzkaten premien arabera, batetik edo bestetik hartzen dizute, eta behar ez dutena, itzuli egiten dizute. Plasmarekin dago eskaririk handiena, gaur egun. Makinen bidez egiten da ordu bete edo gehixeago irauten duen prozesu hori. Azkenean ateratzen dizutena kalitate handikoa da, pertsona bakar batena baita, beste inorekin nahastu gabekoa”.

Begoña Vicente erizaina da, eta badaki zenbateko garrantzia duen aferesiaren metodoarekin egindako erauzketak. “Behar-beharrezkoak dira hainbat gaixoentzat: erredura larria dute-



Urnietako odol emailak jasotako aitortza, artxiboko irudian. AIURRI



Andoingo odol emailak Oianumen, 2016ko argazkian. AIURRI

nentzat, kutsatuentzat, kronikoentzat.. Gainera, laborategiek izugarri estimatzen dute makina bat sendagai eta botika ekoiztu ahal izateko (era guztietako txertoak, kimioterapia...)”.

Keinu txikia, mesede handia

Oraindik ere aurreiritziak nagusi dira odola ematearen inguruan: osasunarentzat kaltegarria dela, orratzaren ziztada mingarria dela... Joxe Mari Tolosak eta Izaskun Minerrek badakite zer den urte mordoan zehar odola eman eta eman aritzea, eta iruditzen zaie halako arrazoiak pausoa ez emateko norberak bere buruari jartzen dizkion aitzakiak direla.

Begoña Vicentek uste du desdramatizatu beharko litzatekeela odol ematearen jarduna, eta erarik naturalenean jokatzeko saiatu behar dela. Berak mekaniatu egin du, ia, noizean behin odola ematearena: “Gutako baikoitzak eskura dugun ekintza da. Nahi izanez gero, denok topa dezakegu tarte bat geure bizitzan, arratsalde bat modu altruistan jokatzeko. Gizarteari on egingo

diozula, kontzientzia horrekin joan behar duzu odola ematera. Behin ekintza hori eginda, argi eduki behar duzu norbaiten bizitza kinka larritik ateratzen lagunduko dezakezula. Satisfazio pertsonal horrek ez dauka preziorik, eta hurrengoan ere berdin jokatzeko mentalizatuta zaude. Hala pentsatzen dut nik, behintzat.”

Izaskun Minerrek zera gehitu du, “zuk ematen duzun odola ez dakizu nori etorriko zaion ondo. Dakizuna da, modu erraz batean eman duzun odol horrek norbaiti egundoko bizipoza eragingo diola. Gainera, egunen batean geu izan gaitezke odolaren beharrean gaudenak”.

Tolosak eta Minerrek behin baino gehiagoetan ezagutu izan dituzte amorru pittin bat eragiten dieten egoerak. “Istripu

"MODU ERRAZEAN, BIZIPOZA ERAGIN DIEZAKE ZUK EMANDAKO ODOLAK"

IZASKUN MINER

baten ondorioz pertsona bat oso larri dago ospitalean. Odolaren transfusioaren premian da, baina une horretan ospitaleak ez dauka gaixoak behar duen odol motarik. Eta hor non familiarak hasten diren kexada, ez dagoela eskubiderik esaka. Kontua da, familia horretan, odol emaila izatea inoiz inori ez zaiola burutik pasa ere egin! Egia da denoi dagozkiguela eskubideak, baina maiz ez ditugu kontuan hartzen gizarteari begira eduki beharko genituzkeen betebeharrak, legezkoak ez badira ere, moralak behintzat bai”.

Urnietan eta Andoainen, talde egonkorak

Urnietan bi hiletik behin prestatzen dute azpiegitura guztia, nahi duen herritarra odola ematera hurbil dadin.

"ODOLA EMATEAREN SATISFAKZIO PERTSONALAK EZ DU PREZIORIK"

BEGOÑA VICENTE

Andoainen hitzordua hilerokoa da. Bataz beste, berrogei bat odol emaila hurbiltzen dira batean zein bestean. Azken urtetan mantentzen ari den kopurua da hori, eta ez da gutxi; baina Tolosak eta Minerrek uste dute belaunaldien arteko erreleboa ez dela behar bezala gertatzen ari. “Odol emaila urtetan aurrera doan heinean, normala da bazterrean geratzea noizbait. Gaixotu egin delako, medikatzea egokitzen zaiolako, 70 urte bete dituelako... Eta kosta egiten da horiek utzitako tokia betetzea. Zenbait gazte gerturatzeko ari dira, baina aleka, eta gainera, konstantzia falta zaie”.

Lekukoa hartzea aipatzen hasita, talde eragilean ere kide berriak hurbiltzea ontzat ikusiko lukete. Izan ere, bai Tolosak eta baita Minerrek, lan eta lan urte mordoan daramate.

"URTEAN LAU TXANDATAN ODOLA EMATEN DUT, HUTSIK EGIN GABE"

JOXE MARI TOLOSA

Omenduko dituzten herritarrak

Urnietarrak:

- 25 adiz edo gehiagotan eman dutenak: Lourdes Agirretxe, Izaskun Aizpurua, Fantzisko Jabier Matxinandiarena, Leire Peñagarikano eta Gemma Sanchez.
- 50 aldiz edo gehiagotan eman duen gizonezkoa: Tomas Pellejero.
- 75 aldiz edo gehiagotan eman duen gizonezkoa: Joxeramon Jauregi.
- 80 aldiz edo gehiagotan eman duen emakumea: Santiaga Sanchez.
- 100 aldiz edo gehiagotan eman duena: Begoña Vicente.

Andoaindarrak:

- 25 adiz edo gehiagotan eman dutenak: Nekane Etxenagusia, Javier Garcia, Jose Felipe Infante, Xabier Lekuona, Jose Macias, Mikel Mancisidor, Joxe Krutz Oartzun, Moises Pablos, Mari Jose Sunsundegi, Julen Torregaray, Kontxi Urkola eta Juan Mari Zuriarrain.
- 50 aldiz edo gehiagotan eman duen gizonezkoa: Antonio Eizmendi, Jose Luis Guedejo eta Bittor Perez de Obanos.
- 100 aldiz edo gehiagotan: Joxe Mari Tolosa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA



andoaINDARRA
euskaraz

Dimisioa aurkeztu du

Agintaldia abiatu berrian, ezustekoa gertatu da Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan. Iñaki Egibar Larrañaga zinegotziak aste honetan dimisioa aurkeztu du, arrazoi pertsonalak argudiatuta. Alderdiak haren ordezkoa aukeratu beharko du orain

Jon Ander Ubeda AIURRI

Astelehen goizean jakin zen, Udaletxean errenuntziaren eskaerari sarbidea eman zion unetik. Ezustekotzat har daiteke Iñaki Egibar Larrañagaren dimisioa, alderdiko gizona baita. Arrazoi pertsonalak argudiatu ditu, interpretazio ezberdinetarako bidea emanez. Ikustear dago hurrengo egunetan alderdiak, edo Egibarrek berak, adierazpenik egingo ote duen. Andoingo EAJ-PNVk ordezkoa izendatu beharko du orain, eta jeltzaleen hautes-zerrendan hurrenkeran doan hautagaia Imanol Goenaga Egibar da.

Behin behinean, Egibarren ardurak Marijose Izagirrek bere gain hartuko ditu.

Alderdiko gizona

Iñaki Egibar, aski ezaguna den bezala, alderdiari fidela izan zaio beti. Estrainekoz zinegotzi izendatu zuten 1991-1995 agintaldian, eta 2003-2007 agintaldian alkategai izatera iritsi zen. 2011tik hona izan diren hiru agintaldietan jarraian zinegotzi izan da. Ekainean abiatu zen azken honetan, EH Bilduk inoiz-



Iñaki Egibar jeltzalea Marijose Izagirre eta Txitxu Castro zinegotziekin hizketan, joan zen ekainaren 15ean, agintaldi berriari hasiera emateko plenoan. AIURRI

ko emaitzarik onena lortu eta gero, EAJ-PNVk PSE-EErekin gobernu ardurak hartzeko akordioa lortu zuen. Jeltzaleek Euskara, Kultura, Enplegua edota Zerbitzuak lansailen ardurak bereganatu zituzten. Azken horretan, Zerbitzuetan, Iñaki Egibar arduradun nagusia zen. Berriki, berak sinatutako Udal agirian, herriko lorategien zaintzarako eta mantenimendurako plegu berria idatziko zela iragarri zuen.

Urriaren 21ean aurkeztu zuen errenuntziarekin, udal politikagintzan ibilbide luzeari amaiera emango dio. Perez Gabarain sozialistarekin eta Arregi jeltzalearekin batera, Udal ordezkari modura urte gehien eman duen zinegotzietakoa da Egibar. 1979an lehen hauteskunde demokratikoak deitu zituztenetik, lau urteko 11 agintaldi igaro dira. Bada, Iñaki Egibarrek 11 agintaldi horietatik 6 zinegotzi modura eman ditu. Bereziki,

azken urteotan. Hirugarren agintaldia jarraian betetzen ari baitzen herritarren ordezkari bezala.

1991n abiatutako ibilbide politikoa

1963ko irailaren 16an jaioa, 27 urte zituen lehen aldiz zinegotzi izendatu zutenean. 1991-1995 agintaldian, jeltzaleen alkategaia Mikel Arregi Aranburu izan zen, eta Egibar zerrendan hirugarren aurkeztu zen. Pilar Collantes sozialistak irabazi zituen hauteskundeak, eta jeltzaleek eurekin gobernu akordioa sinatu zuten. Gutxi iraun zuen, jeltzaleek akordioa bertan behera utzi baitzuten. Sozialisten esku geratu zen udalgintza betetzeko ardura nagusia. Agintaldi horretan, 1992ko ekainaren 26an, ireki zuten Allurralde kiroldegia.

1999an zinegotzi kargurako aurkeztu zen berriro, zortzi urte atzerako hurrenkera errepikatuz. Orduko hartan ere Mikel Arregi izan zen alkategaia, eta Iñaki Egibar hirugarren postuan aurkeztu zen. Eusko Alkartasunarekin koalizioan, Gabino Agudo izan zen hautes-zerrenda hartako bigarren hautagaia. Lizarragaraziko garaiak ziren haiek, eta hauteskundeak irabazi zituen Euskal Herritarrok alderdiko Joxean Barandiaranek alkate lanetan jardun zuen. Bastero Kulturgunearen egitasmoa, ia bere osotasunean, agintaldi horretan gauzatu zen. Agintaldi gogorra izan zen, bestalde, Jose Luis Lopez de Lacallaren eta Joseba Pagazaurtunduaren hilketak tarteko.

2003an, ezker abertzalea legez kanpo utzita, EAJ-EA koalizioak irabazi zituen hauteskundeak. 7 zinegotzi eskuratu zituzten, eta Iñaki Egibar laugarrena zen

hautes-zerrenda hartan. PSE-EE eta PP alderdien arteko itunak, aldiz, jeltzaleak oposizioa bidali zituen. Zumea plazaren eta Belabi kalearen hirigintza garapena agintaldi horretan gauzatu zen.

2007an EAJ eta EA ez ziren koalizioan aurkeztu, eta Iñaki Egibar jeltzaleen hautagaia izan zen. Josean Perez Gabarainek agindu zuen lehen bi urteetan, eta Estanis Amutxastegik azken bi urteetan. Egibar oposizioko buru izan zen, nahiz eta berari zegokion liberazio politikoa Gurutz Irigoras alderdikideak hartu. Agintaldi hartan Egibarren eta Cano popularraren arteko ika-mikak ugari izan ziren. Egibarrek udaletxeko gastu korrontearen gehiegizko igoera maiz kritikatu zuen. Makaldegia eta Doktor Huitzi kalea lotzeko eskilara mekanikoak agintaldi horretan zabaldu ziren, bestalde.

2011-2015 eta 2015-2019 agintaldietan zinegotzi lanak Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariarekin uztartu zituen. Gipuzkoako batzarkide zela, 2015-2019 agintaldian Ogasun batzordeko lehendakaria izan zen. Aurtengo ekainean abiatu zen agintaldi berrian PSE-EErekin akordioa sinatu eta gobernu ardurak hartu zituen. Lau hilabete eskas egingo ditu, aste honetan bertan errenuntzia aurkeztu eta gero.

Ogibidez funtzionarioa, bere lanaldia Eusko Jaurlaritzako giza baliabideetara bideratuta dago.

Urte hauetan guztietan Aiurri eskainitako elkarrizketa ezberdinetan, Udal politikagintzarekiko pasioa agertu izan du. Musika da bere beste pasioetako, Olagain Udal txistulari bandaren bidez garatu duena.

1991tik hona sei agintaldi ezberdinetan zinegotzi lanetan aritu da Iñaki Egibar Larrañaga



1992an, Allurralderen irekiera ekitaldian. Horiz jantzita doana, argazkiaren ezker aldera, Iñaki Egibar da. TRUCHUELO



1994ko pleno batean, Arregi eta Artola alboan dituela. AIURRI



2007an, alkategai aurkeztu zenean. AIURRI

Tasa eta zerga berriak, aho batez onartuta

Udal aurrekontuak prestatzen hasteko, garrantzia handikoa izaten da tasa eta zerga berriei onespina ematea. Joan zen astean deitu zuten ez ohiko batzarraldian, ordezkariak duten lau alderdiek ordenantza fiskalak aho batez onartu zituzten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Datorren urteko ordenantza fiskalak erabakitzekeo plenoa garrantzia handikoa izaten da, Udal aurrekontuaren tramitazioari abiapuntutzat har daitekeena. Andoaingo Udal gobernu kideek (PSE-EE eta EAJ-PNV) gehiengo osoa ziurtatuta bazuten ere, tasa eta zerga berriak ezartzeko proposamenaren oposizioa EH Bilduren eta Podemosen babesa jaso zuten.

Onartu den proposamenaren ez da aldaketa handirik egongo, eta kasu gehienetan KPIaren igoera aplikatuko da. Maider Lainez alkateak ez ohiko plenari hasiera eman, eta berehala egin zuen iragarpena: "Saiatu gara ordenantza ahalik eta gutxienez ukitzen, eta proposatuko dugun igoera txikia da. KPIaren araberakoa, hain zuzen".

Hobarien sisteman, aukera ezberdinak aztertu badituzte ere, indarrean dauden irizpideei eutsiko diete.



Urriaren 17an deitu zuten ez ohiko plenoa. AIURRI

Gaiari lotutako eztabaidan, EH Bilduk gobernu planik ba ote zuten galdetu zuten sozialistek eta jeltzaleei. Maider Lainezek "alderdi sozialistaren izenean", zehaztu nahi izan zuen gobernu plana prestatzen ari direla

erantzun zien: "Berandu baino lehen aurkeztu saiatuko gara".

Aparteko Udal batzarraldian ez zen EAJ-PNVko Iñaki Egibar izan. Egund gutxira, ezustean, dimisioa aurkeztu zuen arrazoi pertsonalak argudiatuta.



Asensio, Lainez eta Verdasco tailerraren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Energiaren kontsumoan aurrezteko tailerra

Udalak eta Foru Aldundiak elkarlanean antolatuta, Basteron izango da hurrengo asteartean

Xabier Lasa ANDOAIN

Etxebizitza, denda edo enpresa txikietako argindarraren kontsumoa murrizteko lagungarri izan daitekeen tailerra antolatuta dute Andoaingo Udalak eta Foru Aldundiak, elkarlanean. Tailerra urriaren 29an izango da Basteron, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Saio praktikokoan parte hartzekeo, hilaren 25a baino lehen eman behar da izena. Postaz idatzita: ingurumena@andoain.eus emailera, edota 943 300 30 telefono zenbakira deituta (09:00-15:00).

Jose Ignacio Asensio Foru Aldundiko Ingurumeneko diputatuak, Maider Lainez Andoaingo alkateak eta Jose Luis Verdasco Langileria, antolakuntza eta barne araugintzako zinegotziak egitasmoaren berri eman zuten, prentsa agerraldian. Asensioaren hitzetan, Gipuzkoa Argitu delakoa "baliabide multzo bat da Gipuzkoako gizartearentzat, aurrezpen eta eragin-kortasun energetikoarekin eta pobrezia energetikoaren aurkako borrokaarekin konprometitu dagoenarentzat".

Asensioek zehaztu zuenez, "era errazean lor daiteke energiaren eta bereziki elektrizitatearen kontsumoaren murrizketa, Gipuzkoako etxebizitza, merkata-

ri eta enpresa txikientzako abian jarritako baliabideen bitartez".

Basteron burutuko den tailerrak, hain zuzen, herritarrentzako informazioa indartuko du kontsumitzaileak heziz.

Maider Lainez alkateak Andoaingo herritarrei tailerrera azaltzeko gonbidapena luzatu zien: "Kezka eta zalantza ugari izaten ditugu etxeko fakturarekin, datu asko ez baititugu eza gutzen, egokia ote den ala ez kontratatuta daukagun potentzia, eta abar. Eta hain justu, zalantza guzti horien inguruko argibideak jasotzeko aukera ona izan liteke tailerra; baita energia berriztagarriei buruzko informazioa edukitzeko eta horietara jo ahal izateko zein aukera daukagun jakiteko ere".

Antzeko tailerrak Gipuzkoa osoan egiten ari dira. Horrez gain, gipuzkoar guztien eskura dago kontsumo energia aurrezteko gida zein tutorialak Gipuzkoa Argitu programaren [www. argitu.eus](http://www.argitu.eus) webgunean. Etxe bakoitzeko kontsumo datuak ezagutzeko jarraitu beharreko pausoak zehazten dira tutorial horietan; besteak beste, zenbat kontsumitu dugun eta noiz egin diren kontsumorik handienak jakin asmoz.

EH Bilduren eta Podemosen baiezkhoa

2020 urterako aurkeztu zen ordenantza fiskalen proposamenari aldeko botoa iragarri zuen ordezkariak handiena duen EH Bilduk. Andoni Alvarez zerrendaburuak herriarekiko konpromisoa berretsi zuen: "Lehen hilabete hauetan demostratzen ari gara arduraz jokatzeko gaitasuna dugula. Etorikizunean ere horrela jarraituko dugu".

Tasa eta zergen proposamenari babesa ematearekin batera, azken asteetan eskatzen ari diren gobernu plana aldarrikatzen jarraitu zuen: "Udal politika publikoak egiteko ezinbestekoak dira diru sarrerak edukitzea. Baina ba al daki udal gobernuak zertarako behar duen dirua? Gaur

124 egun bete ditu Udal gobernuak bere jardunean. Eta gogoratu behar dugu, gobernu planik ez duen gobernu bat dugula Andoain. Esan ohi da, hobe dela plan txar bat edukitzea, planik ez edukitzea baino. Zertarako diru sarrerak orduan? Zer egiteko? Zein da 2023an zuten agintaldia amaitzen denean utzi nahi duzuen Andoain?".

Aitzakiak alde batera utzi behar dira. Gobernu berria dela esateak ez du balio; herritarrek zenbat diru ordaindu behar duten erabakitzen bagaude, ezin diegu esan oraindik gobernu berria dela. Udal gobernu hau baldintza onenetan sartu da lanera. Egoera ekonomiko ona udalean, proiektu ugari martxan, eta lantsailen

funtziomamendu bizi batekin. Ekainaren 16tik gaur arte, gobernu plan bat egitea izan behar zuen lehentasun nagusia, baina urratsik egin ez dela dirudi. Herritarrok honen berri ez dugu, behintzat".

EH Bildu Gobernu plana egiten laguntzeko prest dagoela adierazi zuen: "Gure programan jasota zeuden proiektu nagusiak izan daitezke oinarri: Kiroldegiko bigarren pista estalia, liburutegi berria, emakumeen etxea, autokarabana gunea, hotela Irigoienazpikoan, mugikortasun eta irisgarritasun plana...".

Elkarrekin Podemos alderdiko bozeramaile Tere Santanak adierazpen laburra egin zuen, gobernu taldeak aurkeztu zuen proposamenari babesa adierazteko.

**TAILERRA
URRIAREN 29AN
IZANGO DA
BASTERON,
18:00TAN HASITA**

**PARTE HARTU
NAHI DUENAK
URRIAREN 25A
BAINO LEHEN EMAN
BEHAR DU IZENA**

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA BETERRI-BURUNTZA

Klima ez da negozioa

Naturklima-k, Foru Aldundiak erraustegia zuritzeko sortu duen fundazioak, urriaren 23an eta 24an jardunaldiak antolatu ditu “Gipuzkoa Klimaren Alde” izenburupean. Errausketaren Aurkako Mugimenduak Foru Aldundiaren erakusten duen muturreko hipokrisia salatu nahi du, urteko 200.000 tona CO² baino gehiago eta ehunka mila kilo nitrogeno oxido atmosferara isuriko duen erraustegia pizteko bezperetan, “klimaren alde” ari direla adierazten dutelako. Gipuzkoa mailan erraustegia negutegi efektua sortzen duten gas gehien isuriko duen enpresa izan daiteke, hau da, planetaren osasunari kalte handiena egin diezaiokena. Ezin dira ere albo batera utzi tximinia beretik aterako diren eta gizakion osasunari kalte egingo dioten dioxina, metal astunak, etab.

Gainera, jardunaldien ikuspegia batez ere enpresariala da; bertan dira hizlari moduan banketxe eta multinazionalak ordezkaririk. Larrialdi

ekologiko larri honetara eraman gaituen kapitalismo basatiak krisia berarekin negozioa egiten jarraitu nahi du, Aldundiaren laguntzarekin. Garbi geratzen ari da urte askotan zehar kapitalismoaren interesak eta naturaren kontserbazioa kontrajarriak direla. Banketxe, multinazional eta egungo agintarien eskutan uzten badugu larrialdi ekologikoaren zuzenketa orain arte bezala jarraitu dugu, egunetik egunera okerrago.

Beraz deia zabaldu nahi diegu herritarrei jabetu daitezen egoeraren larritasunaz eta denon artean agintariei eska diezaiogun benetako neurriak har ditzatela, klimaren alde. Alternatiba ekologikoagoa badagoela kontuan izanik, lehenengoa Donostiako erraustegia ez piztea da, lehen aipatutako gasen isurketa ekidituz; eta honekin batera Gipuzkoan biztanleko zabor gehien sortzen duen herrian, Donostian alegia, bilketa sistema eraginkorra martxan jarritz.

Errausketa = Klima aldaketa.

Okerrak zuzen

Aurreko asteko erreportajearen, Salbadorren hilketa ilustratzeko aukeratutako argazkia

okerrekoa izan zen. Jarri beharreko argazkia dagoeneko ikusgai dago webguneko albistean, eta baita astekariaren PDFan ere. Barka eragozpenak.



KOMUNITATEA

ANDOINGO MINTZALAGUNAK ANDOAIN

Berriro martxan

Dagoeneko hasi dira martxan Andoaingo Mintzalaguneko kideak. Iraila eta urrian kanpaina egin ondoren, taldeak osatu eta asteroko hitzordua egiteko unea iritsi da. Orain artean harrera ona izan du egitasmoak herrian, oro har, talde fidelak eta egonkorrak osatu baitira azken urteotan. Aurten ere partaide berriak hurbildu dira, baina batez ere bidelariak dira, hau da euskaraz praktikatu eta hitz egin nahi dutenak. Ondorioz, egitasmoak bidelagunen beharra du, alegia, euskaraz egin nahi duenari lagunduko diotenak, euskaldun zaharrak edo euskaraz txukun moldatzen direnak. Batik bat, goizetan libe dagoen bidelagunen bat behar da; talde gehienak arratsaldez elkartzen dira,



Aurreko edizioko Mintzalagunen taldeko argazkia. AIURRI

baina badago goizetan geratu nahi duenik ere, eta hutsune bat dago hor. Dena den, edozein herritarrek parte hartu nahiko balu ongietorria izango da.

Era berean, parte hartzaileen borondatea eskertu nahi dugu, ezinbestekoa baita hauek egiten duten ekarpena eta ahalegina balioestea.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzaila: Maddi Trutuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Leges Gordinak: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALIATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA **Urnieta Udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Euzko Legebiltzariaren **Gipuzkoako Foru Aldundia**

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:**

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

Agintaldiaren hasiera hizpide

Oposizioan dauden alderdiak eta gobernu ardurak dituen alderdi jeltzaleak, hurrenez hurren, 2019ko ekainean abiatu zen agintaldiaren lehen ehun eguneko balorazioa egin dute. Aiurri.eus gunean balorazioak bere osotasunean kontsulta daitezke



EAJ-PNVko, EH Bilduko eta PSE-EEko ordezkariak kargu hartze ekitaldian. AIURRI

PSE-EE

Urnietako PSE-EE alderdiko Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos zinegotziek Udal Gobernuari buruzko balorazio ezkorra egin zuten, urriaren 10ean deitu zuten prentsa agerraldian. Legealdia ehun egunetara iritsi denean, hauxe da gobernuaz egiten duten deskribapena: "Egitasmo politiko eskasekoa eta makala bere egitasmoen garapenean, ilusorik gabekoa, informazio gutxi helarazten duena, eta gainerako alderdiei parte-hartzeko errastasunik ematen ez diona".

Bi zinegotzi sozialistentzat, EAJ euren aurkako jarrera erakusten ari da. "Ahal izan duten guztietan PSE-EE kanpoan utzi dute. Eta hori ez da politika, hori maila pertsonalean eragiten duen jarrera da. Demokraziarekin zerikusi gutxi duen jokabidea da hori. Urnietako herritarren sektore handi bat uzten baitu kanpoan. Alkate batek herritar guztien alkate izan behar du".

Bereziki kezkarri egiten zaizkie hiru puntu:

- "Lehenbizikoak alkatearekin du zerikusia: bere azken legaldia izango dela adierazi du, eta horrek, herriaren alde gutxi daukala adierazten du, gure ustez".
- "Bigarrena, legealdia hasi zenetik, formaz eta egitez erakutsi duten jokabideak zerikusi gutxi dauka aldarrikatzen duten gobernantza berriarekin".
- "Hirugarrenik, Bake eta Bizikidetzeta Plana: Azken urtetan hautsita dago, eta ez dugu ahalagirik sumatzen irtenbiderik topatzeko".

EH Bildu

"Badira hilabete batzuk udaletxean hasi ginela. 7 zinegotzi PNVkoak (alkatea horietako bat), 4 EHBildukoak eta 2 PSOEkoak. 13, guztira. Zer aurkitu dugu? Enpresa moduan jokatzeko duen talde bat, koadrilan gobernatzen, beste 6 zinegotziak existituko ez bagina bezala. Udalaren errekurso oro EAJ-PNVk kudeatzen du.

- Ekitaldi ofizialak: Jakiten ditugun urriak edo orduz aldatzen dira guri abisatu gabe, edo prentsan jakiten ditugu. Beraiek, ekitaldi orotan presentzia ziurra dute. Guk, askotan, antolatuta dagoenaren berri ez dugu jakin ere egiten.
- Herritarrari arreta eta erantzunak: Alderdi politiko baten izenean sartzen ez den edozein eskari ez da gure eskura iristen, eta ez digute informaziorik pasatzen.
- Herria txukun dago, polit. Eta herritarrak? Eskaerei ez zaie erantzunik ematen, eta ematen zaienetan berandu. Ekimen ia guztiak diruz lagunduak badira ere, ez dira edukiz zainduak. Modu horretan, gauzak eta gauzak abian daude baina inolako zaintzarik gabe.
- Alegazioak eta eskaerak: Uztailak 13an sartu genuen alegazio bat, eta bi eskaera, gaur egun erantzunik jaso gabe gaude.
- Komisioak: Legearen markoan mugitzen dira, ozta-ozta, 48 ordu lehenago abisatuz noiz diren komisioak. Orduak beraiek, lagun talde baten moduan, adosten dituzte eta gero guri jakinarazi".

EAJ-PNV

"Hasiera honetan egiten dugu balorazioa jarraikortasunarena da. Lanean jarraitu dugu, aurreko legealdiarekin ez baitugu etenik izan. Azaroa amaitu aurretik Legealdi Plana onartua izango du Udalak, eta urnietar guztiei helaraziko zaie zein izango diren helburu estrategikoak eta horiek bideratzeko lau urteetan landuko ditugun ekintza ildoak.

Herritargo mailan, ekintza nagusia Sanmielen antolakuntza izan dugu. Horrez gain, "Jabetze eskola" martxan jarri dugu.

Lurralde mailan berriz, Babiloniko eremuan 340 etxebizitza garatzeko urratsak eman ditugu. Eteneta eta San Juan elkartuko dituen igogailuari dagokionez, igogailu aurrean dauden kableak kendu eta egitura metalikoa muntatzen hasiko gara. Landagunean ere ipini dugu arreta, hainbat mendi-bide asfaltatuz eta edukiontzi marroia bertara zabalduz.

Arlo horretan, garrantzitsua izan da, organikoaren poltsak jasotzeko ordutegia zabaltzea izana. Irisgarritasun arloan ere hobekuntzak egin ditugu.

Antolakuntzan, Udalera sartu diren zinegotzi berriei informazio eta trebakuntza eskaini zaie. 2020ko ordenantza fiskalak prestatu dira, eta 2020ko aurrekontuen lanketa egiten ari gara.

Bestalde, proiektu garrantzitsuen kontratazio mahaiak irekita dauzkagu, hala nola, Udal kiroldegi berriarena edota Jubilatuen elkartekoa.

Laburbilduz, eta herritarren beharrak kontutan hartuz, bizi kalitatea hobetzeko lanean ari gara".

Aiurri.eus webgunea, eskualdeko orainkaria

**Argazkiak, bideoak,
agenda, albisteak,
azken ordukoak...**



Andoni Urbistondo URNIETA

Joxerramon Jauregi entziklopedia baten parekoa da (62 urte). Egongo zara berarekin ordu bat, goiz bat, edo egun osoa, eta ez zara aspertuko. Maitasunez deskribatzen du bere eguneroko gogorra, bere bost hamar-kadako oroitzapen aberatsak. Berarentzat euskal aizkora zer den galdetuz gero, bere familiaren pare jarri du ia-ia: “nire bizitzako ezinbesteko osagaia”. Erratzu poligonoko eraikinean egiten ditu orduak eta orduak, bere martxan, eguneko 20-30 aizkora ekoizten. Euskal Herriko artisau aizkora ekoizle bakarra da, eta atzerriko jendea bisitan etortzen zaio, liluratuta, bere ofizioaren xarmaren berri zehatz jasotzeko. Negozioa handitzeko eskaintza asko izan ditu, baina uko egin die Jauregik. Berak tradizioaren alde egin du, artisau erako aizkoraren alde, negozioaren alde baino: “Jateko eman digu, eta horrekin konforme”.

Jauregi Erratzun lanean hasi zenean Urraka auzoa onddoak bezala hazten hasia zen. “Lau edo bost urte nituela *herreroa-rengana* joaten nintzen, orduan aita han aritzen zelako lanean, idiak eta perratzen. Han aritzen nintzen jolasean: iltze bat eman, mailua hartu eta iltzeak egurrean sartu, eta horrela”. 14 urterekin gaur dauden tokira mugitu ziren, “herria hazten ari zelako, eta Udaletik beste toki batera mugitzeko esan zigutelako, Erratzu aldera”. Ordurako perratzea galtzen hasia omen zen, 1970 urtearen bueltan. Kontuak egiten hasi eta azkar bota du: “50 bat urte daramatzat hemen ia-ia”. Aitzurrak, egurrak, baserriko tresnak konpondu... Horrela hasi ziren. “Gero, pixkanaka, traktore txikiak sartzen hasi ziren, eta horrekin perratze lanak bukatu ziren, eta guk geuk bestelako lan batzuk bilatu behar izan genituen”.

Garaiko Maestria Industrialak ikasi zuen, eta soldadutzatik bueltan, lana uzteko zorian izan zen Joxerramon: “Beste enplegu bat nuen, eta hemengo lana gogorra zen, ordu asko egin behar ziren. Fabrikara joatea erosoa goa zen”. Aitari esan zion, fabrikari hasiko zela, eta ez omen zion ezer esan. Amak, ordea, bai. Aita osasunez nahiko justu zegoela esan omen zion, eta bera fabrikara joaten bazen, ea aitak



Jauregi da aizkora ekoizle bakarra Euskal Herrian. AIURRI

Urnietako ikur, Euskal Herriko nortasun

Euskal Herriko aizkora ekoizle bakarra da Joxerramon Jauregi urnietarra, eta 50 urte betetzear da aizkorak egiten. Euskal artisau aizkora famatu du mundu osoan eta nahiago izan du negozioa handitzeko eskaerei muzin egin, eguneroko martxa xumeari eutsiz

zer egin behar ote zuen. “Ezin zituen, jada, salmenta kontuak bizkar gain hartu, hara eta hona mugitu, eta hurrengo egunean aitari esan nion enpresan jarraituko nuela”.

50 urte joan dira ia orduz geroztik. Eta ez da mende erdi atzera hartutako erabakiaz damutzen: “Berriro 20 urte izango banitu, antzera jokatu nuke. Gustuko lana dut, eta gustukoa

izatea derrigor, ordu asko baitira”. 50 urte atzera, gainera, askoz gogorragoa omen zen lana. “Sutegian eta su ondoan zenbat ordu pasatu ditudan zenbatu izan banu... Orain eguneko or-

dubete egingo dut, asko jota”. Egun aizkorak egiteak iraganean baino askoz meritu txikiagoa daukala dio zintzo. “Lehen bai zen lana, eta gogorra. Egun eroso da”.

Nola egiten da aizkora bat?

Aizkorak egiteko faseak azaltzen ditu Jauregik: “molde batean aizkora egiten dut, forma eman: beruna, begi zuloa eta altzairua behar dira. Gero hortza, egurra moztan duen filoa mehetzen dut, mailuarekin sutegian berotu eta forjatuta. Lehen horrek denbora asko kentzen zuen, orain prozesua motzagoa da. Hamarkada batzuk atzera lau aizkora egiten ziren ordubetea. Orain 30 egin ditzakezu. Prozesua, orain, berotu eta forjatzea da, mailukatzea. Edo eskuz, edo mailu pneumatiko batekin. Iraganean doblatu egin behar zen, kaldata, kristoren beroak pasa... gauza asko egin behar ziren”. Behin aizkora egina daukanean esmerilean mehetzen du, eta ondoren, “tenplatu, gogortasuna eman”. Hortxe bere jardunaren sekretu preziatuena: “Txuleta bat oso ona izan daiteke, baina gehiegi egin edo gatz gehiegi botatzen badiozu, akabo

txuleta. Aizkorarekin berdin. Altzairu ona eduki dezakezu, baina tratamendu termiko egokia ematen ez badiozu, jai daukazu. Eta nik, ba urteekin ikasi egin dut, noski. Egun prozesu hori labean egiten dute industria handiek. Nik, aldiz, orain 100 urte bezala tenplatzen dut, altzairuaren gorritasunaren arabera”.

Tenplearekin gogortasuna ematen omen zaio hortzari, beruna lo dagoen material bat baita, berotzean bizitza hartzen duena, hainbat osagaiz osatua baitago. “Altzairu guztiak berdin tenplatzen direla uste du jendeak, baina ez da hala. Egun tenplea egiteko tresna modernoak daude, aitarenean egiten dute. Nik lau zapabost altzairu motarekin egiten dut lana”. Kirtena, aldiz, Igerategi zerrategian erosten du, Urnietan bertan. “Niretzako egiten dituzte preseski”.

Kale ume petoenentzat harri-garria egiten da aizkorak halako erakarpena sortzea. Zergatik, bada? “Aizkora Euskal Herrian betidanik oso inportantea izan da, baso asko eduki dugulako. Baserriak nola egiten ziren? Egurrekin. Itsasontziak berdin, eta bestea ikatza egiteko, egurra moztu, lehertu eta ikatza egiten zen. Ikatza oinarritzat izan da gure herriko garapenean. Olagintza, errementariak, oso inportanteak izan dira, eta lan horretarako aizkorak ere funtsezkoak. Aizkora ezinbesteko tresna izan da Euskal Herriko etxe askotan”. AEBetan azaldu ziren lehen aizkorak Euskal Herrikoak ote ziren susmoa bilobolo dabilela ere kontatu digu. “Edo bertakoak, edo Siberiakoak behar dute izan”. Bale arrantzan ibiltzen zirenentzat ere aizkora funtsezko tramankulua zela dio aizkora egileak: “Arpoiko soka mozteko funtsezkoak ziren aizkorak, behin baleari arpoia sartu ostean aske utzi behar zelako arpoia. Bestela akabo, baleak airean eramango luke ontzia, eta berarekin arrantzale guztiak”.

Egun, Jauregi da aizkora ekoizle bakarra Euskal Herrian. Baita Espainian eta ia Europa osoan ere. “Suedian badaude enpresa handi pare bat, eta hemengo enpresa batzuk Txinan ekoiztitzako aizkorak saltzen dituzte...”. Jauregiren aizkorek badute eroslearen estimua handitzen duten ezaugarri garrantzitsuak: artisau-lanak dira, “eskuz egindakoak, eta mimo handiarekin ekoiztiak,



Eguneko hogeiaizkora egiten ditu, bere tailerrean. AIURRI



Jauregi Urnieta eta Aizkora markak jartzen dizkie aizkora guztiei. AIURRI

banan bana”. Iraganeko kalitatea mantendu dute aizkora enpresan, eta jendea gustura omen dago. “Orain aizkorek bukaera politagoa, zainduagoa dute, eta jendeak horri erreparatzen dio, dagoeneko ez zaio hortzaren eraginkortasunari hainbeste begiratzen”. Aizkora batek oso bizitza luzea eduki omen dezake. “Zaintzen bada, urte asko. Askok eta modu egokian erabiltzen ez bada, ba gutxiago. Orduan eta gehiago zorroztu, orduan eta iraupen txikiagoa”.

Internet sarearen iraultza

Merkatuaren oinarria Euskal Herria da, “produktzio guztia

"AIZKORA MIRESTEN DUEN KANPOKO JENDEA ETORTZEN ZAIT SARRI EROSTERA"

bi heren edo”, baina atzerrira begira ere lan dezente egiten du. Internet sarearen zabalkundearekin merkatu berria ireki omen da aizkorarentzat, “eta imajinatu ezin duzun lekuetara iristen ari da. Ez naiz AEBak, edo Kanadari buruz ari, Espainiako bezeroei buruz baizik”, dio Jauregi. “Youtube kanalean bideoak daude, web gunearen bitartez aizkora munduko azken txokora iritsi da, aizkoren inguruko blogak ere badaude, eta aizkora miresten duen jendea etortzen zait sarri aizkorak erostera, erabat hunkituta geratu direnak. Oporretan Euskal Herrira etorri eta hona aizkora erostera bakarrik

"EZ DA ERRAZA NEGOZIOARI SEGIDA EMATEA, BAINA EZ DUT ESPERANTZA GALDU ORAINDIK"

etorri direnak, asko, euskal aizkoraren bila. Eta esplikatzeko diezu, eta ikaragarria da nola gozaten duten”. Egunak enpresan Jauregiarekin pasa nahi dituzten bezeroak dira, aizkorak nola ekoizten dituen jakin nahi duten turista japoniarrak! “Nik hau museo bat ez dela esaten diet, baina nekez konbentzitzen ditut”, kontatzen du, natural.

Iraganeko bezero multzo apala asko handitu dute teknologia berriek. “Bildumazaleen munduak asko mugitzen du”. Euskal aizkoraren berezitasun bat azpimarratzen du sarri Jauregi. “Begi zuloa ere ezberdina da, pentsa”. Urnieta eta Aizkora markak jartzen dizkie aizkora guztiei, Jauregi zigiluaz gain, eta artisau aizkorak egin. Esan omen diote, ea zergatik ez duen axe, ingelesezko aizkora hitza jartzen aizkoratan, salmentak handitzea. Honatx, bere erantzuna: “Niretzat Urnieta, Aizkora eta Jauregi dira nire zigiluak, eta ez dago besterik. Euskal Herria eta Urnieta munduan ezagutarazten dut, nire neurrian, eta horrek poza ematen dit”. Aizkora batek bi kilo eta 400 gramo pisatzen du, eta 250-300 euro inguru balio du. Bizitzeko ematen al du?: “Jateko adina ateratzen dugu, eta gaitzerdi”, dio umoretsu Jauregi.

Aizkora nazioartekotuta, hizkuntzekin eta zer moduz moldatzen ote den galdetu diogu Joxerramoni: “Ondo ez. Gure garaian frantsesa ikasten genuen eskolan, ingelesa batere ez. Orain ere gutxi. Alabak laguntzen dit, eta gauetan berak erantzuten ditu ingelesezko mezuak. Google-eko itzultzailearekin ere oso ondo moldatzen naiz. Moldatu behar, egunero-egunero jasotzen baitituzte ingelesezko mezuak”. Azken egunetan munduko txoko askora bidali ditu aizkorak: Basileara, Italiara... Arazotxo bat badu, zeregin horretan. “Ameriketara ezin dut aizkorarik postaz bidali, bertan aizkora arma gisa hartua dagoelako”. Finlandiako produktore batekin halako akordio bat dauka, muga hori gainditzeko, “hark baime-na baitu aizkorak igortzeko. Baimen eta paper asko bete beharko nituzke akordio hori ez banu”.

Estatubatuar batek Jauregi egiten duen aizkoren inguruko bideo bat egin zuen, “eta 600.000 ikustaldi ditu, dagoeneko.

Antton anaia ere etorri zen, eta erdi brometan nola forjatzen nuen grabatu zuen, eta bideo horrek ere 300.000 ikustaldi ditu sarean. Gero eta ezagunagoa naiz aizkora munduan, egia esan. Bada jendea oporretan Euskal Herrira, edo Euskal Herritik gertura etorri, eta enpresa erakusteko erregutzen didana. Askotan egun pasak egiten ditut beraiekin”.

Negozioaren etorkizuna

Azkenaldian ireki gabe zeukan atea ireki du Jauregi, apustuetan parte hartzen duten aizkolariekin harremanetan jarri: “Askok erosten dizkirate aizkorak bai. Aitzol Atutxa berak, adibidez”. Berak hala erabakita egin dio uko luzaro apustu aizkorak ekoizteari, “baina azken bi urteetan ari naiz mundu horretan barneratzen, eta gehienek gustura daudela esaten didate”. Hutsunea ere sumatu du Jauregi, alor horretan: “Aitzol Atutxak Euskadiko Txapela irabazi zuen, baina ez dut inon ikusi 40 urte eta gero berririo Euskal Herriko aizkora batekin irabazi duela txapela. Hemengoa ez famatzeko halako freno daukagu”.

Egunean ze martxa daraman galdetzeko tartea ere hartu dugu. “Hogeiaizkora ekoizten ditut eguneko. Hori tope. Hortik gora ezin dut, eta hala esaten diet bezero guztiei”. Ez daki zer pasako den negozioarekin, “ez dakit semeak zer egingo duen etorkizunean. Garbi dago ni osasunez ondo mantentzen naizen bitartean iraungo dudala hemen. Agian 20tik 10 aizkorara murriztuko dut eguneko produktzioa, osasunez ere ahultzen joan naitekeelako. Jakitun naiz ezingo dudala gaur egungo erritmoa jarraitu, baina garbi daukat ni osasunak jubilatuko nauela. Ez daukat ezer programatuta. Erabat ez itzaltzea espero dut, seme bat badauket eta orain beste lan bat baldin badu ere, aita izango da... Ez da erraza hona etortzea, autonomo langile batek dituen eskubideak ez dauzkagulako. Egun bikoteek etxeko lanak partekatzen dituzte, ni gaztea nintzenean igual 12-14 ordu egiten nituen hemen, baina etxean kolperik ez nuen jotzen... Ez da erraza, segida ematea, baina ez dut esperantzarik galdu oraindik”. Garbi dauka ez duela nahi bere enpresa museo antzeko bat bihurtzea. “Aizkora bizirik dagoen zerbait da”.

Kataluniarekin bat eginda

Andoingo eta Urnietako Udal ordezkariak zabala Kataluniako presoak zigortu dituen sententzia aurka agertu da. Era berean, bi herrietako pertsona ugari hurbildu ziren Donostiako manifestazio jendetsura. Agerraldi ugari egin da egun gutxiko epean.

Alderdi abertzaleen arteko adostasuna

Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako prozesuari buruz emandako epaiaren aurrean, EAJ-PNV eta EH Bildu alderdi politikoek adierazpena adostu dute. Urnietan, esaterako, bi alderdietako ordezkariak adierazpen hori jendaurrean irakurri zuten, urriaren 18an San Juan plazan deitu zuten agerraldian. Mikel Pagola alkateak eta Ainara de Miguel zinegotziak bozeramaile lanak egin zituzten. Eta haiekin batera ziren, besteak beste, David Rosco zinegotzi jeltzalea edota Nekane Ubillos ezker abertzaleko zinegotzia. Mikel Izagirre alkate ohia eta Maribel Vaquero alderdi jeltzaleko ordezkaria Espainiako Senatuan bertan izan ziren ere. Hauxe da bi alderdien artean adostutako manifestua, herrigune guztietara zabaldu dena:

- Ziurtatzen dugu demokraziaren adierazpen baketsua,

indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitze eskubidea.

- Argi eta garbi adierazten dugu ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
- Nabarmentzen dugu Kataluniako Prozesaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.
- Azpimarratzen dugu euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere

herrien borondatea era demokratiko eta baketsuan erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. artikulua ezarpenez edo erabakitzeko eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarri erantzuten dio irtenbide elkarriketatu eta negoziatua bilatu ordeztu eta herriari galdetu beharrean.

- Estatuko botereei eskatzen diegu, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utzi ditzatela eta era berean, erbestera politikoen aurkako auzibideak bertan behera utzi ditzatela.
- Elkartasuna adierazten diegu Kataluniako preso eta erbestera politikoei nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei, eta gipuzkoarrei dei egiten diegu bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Adierazpen ugari azken egunotan



Antiguatik jendetza abiatu zen Boulevard aldera. GUREESKU

Manifestazioa Donostian Milaka lagun elkartu ziren Donostian, azken urteotako manifestazio jendetsuena bilakatuz. Gure Esku Ekimenak Euskal Herri osoko herritarrek erakartzea lortu zuen. Luis Llach kantaria izan zen amaiera ekitaldiko gonbidatu berezia.



Ainara de Miguelek eta Mikel Pagolak egin zuten irakurtaldia. AJURRI

Agerraldi bateratua Urnietan Sententziaren berri eman eta lehen orduetan, Gure Eskuren deialdiari jarraituz, dozenaka lagun elkartu ziren San Juan plazan. Ostiralean, aldiz, alderdi abertzaleek agerraldi bateratua egin zuten.



Udal langileek deitutako bilkura, Goikoplazan. AJURRI

Sindikatuaren ordezkariak Andoainean Joan zen ostiralean, Andoingo Udaletxeko hainbat langilek protesta ekitaldia egin zuten Goikoplazan. Hitzorduarekin bat egin zuten EH Bilduko eta EAJ-PNVko hainbat zinegotzik.



Botilak berrerabiltzeko egitasmo berritzailea

Beterri-Buruntza eskualdean ia bi milioi botila ekoizten dira, urtero. Horietatik %78 berrerabiltzen diren arren, gainerako %22 berrerabilpen ziklotik kanpo geratzen da. Berrerabilpen kopurua areagotzeko egitasmoa abiarazi dute



Beterri-Buruntzaldeko udalek egitasmo berria aurkeztu dute. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Eskualdeko Udalek ekonomia zirkularrean oinarrituriko Sagarberritu egitasmoa aurkeztu dute. Prentsa ohar bidez, tokiko izaera duela azpimarratu dute: "Garapen iraunkorrean oinarritutako proiektua da eta produktuen, zerbitzuen, hondakinen, materialen, uraren eta energia-*ren bizi zikloa ixtean* oinarritua dago. Beirazko sagardo botilen berrerabilpenarekin botila bakoitzaren iraupena luzatu nahi da. Horrela balioa duen ezer ez da botatzen".

Egitasmoa bideratzeko Beterri-Errotuz laneratze enpresa sortu dute, plana pilotoa dela adieraztearekin batera: "Irabazi asmorik gabeko sozietatea da eta pertsonen orientazioa, formazioa eta laneratzea sustatzea du helburu. Plan pilotuaren bidez, etorkizunean beira botilen berrerabilpenak merkatuan izango duen eragina zein den ikusiko da".

Eskualdean estrategikoa den sagardogintza industria aukeratu dute. Auto askitasunean oinarritutako sistema garatu nahi dute, "beira botilak gertuen dauden instalazio egokietan tratatu, hondakin kopurua jaitsi eta energia kontsumoa murrizteko: Horregatik proiektua sustatzen duten eragileek elkarlanean es-



Sagardo botilak berrerabiltzeko egitasmo berria martxan dago. SIGFRIDO KOCH

trategia konpartituak izatea funtsezkoa da". Egitasmoa diruz lagundu du Foru Aldundiko Ingurumen sailak. Sustatzaile nagusi dira, Gipuzkoako Sagardo Elkarte eta Euskal Sagardoaren baitako entitateak. Bestalde, proiektuan laguntzen dihardu

San Marko Mankomunitateak, bere baitako garbiguneetan sagardo botilak jasotzeko gune berezitua errazteagatik. Herri-tarrek, beraz, sagardo botilak sagardotegietara edota Andoaingo eta Buruntzaldeko Garbiguneetara eraman ditzakete.

EGITASMOAREKIN SAGARDO BOTILA BAKOITZAREN BIZIRAUPENA LUZATU NAHI DA

SEKTOREAK SUSTATUTAKO EGITASMOA INGURUMEN SAILAK DIRUZ LAGUNDU DU



Ekitaldian Vaquerok eta beste hainbat hautagaiak parte hartu zuten.

EAJ-PNV alderdiak boto aktiboa sustatuko du, kanpaina zehar

Abstentzioa saihestu eta boto aktiboa sustatu behar dela uste du alderdi jeltzaleak

Erredakzioa URNIETA

Hauteskunde Orokorrek gerturatzzen ari dira, eta alderdiak lanean hasita daude. EAJ-PNVk Joseba Agirretxea aurkeztuko du, Kongresurako. Alderdiak antolatu duen ekitaldian honakoa adierazi zuen: "Azaroaren 10ean berriro hauteskundeak izango

ditugu, baina ez tokatzen direlako, horretara behartu gaituztelako baizik". Hitzordu berriaren aurrean parte hartzeko deia luzatu zuen: "Normala da jendearengan amorrua nagusitzea, eta hain justu ere haserre hori zigor boto aktiboa bilakatu behar da, ez abstentzioan".



Pozueta, Aizpurua, Ruiz de Pinedo eta Matute EH Bilduko Kongresurako hautagaiak.

EH Bilduk apirileko hautagaitzak berretsi ditu

Apirileko emaitzak berrestea helburu du koalizioak. Hautagai berdinak aurkeztea erabaki du

Erredakzioa ANDOAIN

Hurrengo azaroaren 10ean egingo diren Espainiako Kongresurako eta Senaturako hautagaiak apirilean egin ziren hauteskundeetako berak izatea proposatu zuen EH Bilduren Mahai Politikoa. Militantzoak, ondoren,

eragileen proposamenari baiezkoea eman zion. Hauexek izango dira, beraz, EH Bilduko ordezkariak EAEn eta Nafarroan: Mertxe Aizpurua (Gipuzkoa), Iñaki Ruiz de Pinedo (Araba), Oskar Matute (Bizkaia) eta Bel Pozueta (Nafarroa).




Andoaindar gazteak ikasketak eta golfa uztartzen ditu. JOSEBA GARMENDIA

"Sariaren garrantziaz etxera iristean jabetu nintzen"

JOSEBA GARMENDIA GOLF JOKALARIA

GOLFA 16 urteko andoaindarra da, La Salle Berrozpen ikasten ari dena. Ekainean 'American Dream' saria irabazi eta gero, AEBen eta Kanadan ikasteko beka lortu du



Joseba Garmendia. LSB

Mikel Arberas ANDOAIN
Noiz hasi zinen golfean jokatzeko? Zerk bultzatu zintuen?

Zazpi urterekin hasi nintzen jokatzeko. Nire aita 30 urterekin hasi zen golfean, eta horren harira, anaia eta biok ere murgiltzen hasi ginen. Hasiera batean, ez nuen golfa bereziki gustuko, baina pixkanaka jokatzeko hasi nintzen erritmoa hartu nuen. Gaur egun, izugarri gogoko dut, kirol honetaz maiteminduta nagoela esan daiteke.

Praktikatu zenuen lehen kirola golfa izan zen? Edo beste kirol jardueren zalea zara?

Umetan eskolan egiten dituzten kirol jardueretan hasi nintzen, eta nahiko gaizki egiten nuela ikusi nuen.

Golfean, berriz, hobe nintzen jabetu nintzen eta praktikatzeko jarraitzea erabaki nuen.

Zein da zure eguneroko errutina? Eskolara joan, eta eskolatik irten ondoren bizpahiru orduz golfean entrenatzera joaten naiz; normalean Goiburun entrenatzen

dut, baina batzuetan Zarautzeko golf zelaira ere joaten naiz. Duela gutxi jarduera fisikoa ere lantzen hasi naiz.

Ikasketak eskolan aurreratzen saiatzen naiz, ez dudalako denbora asko.

Azterketak ditudanean ez naiz entrenatzera joaten. Horrela, koetan golfa eta ikasketak tartekatzea ez da erraza izaten; guztia planifikatu behar duzu eta eginbeharrak zein egunetarako diren jakitea ezinbestekoa da. Egin beharrekoak zein diren jakinda, eta eskolan etxekolanak aurreratuz gero, eguna hobeto aprobetxatu daiteke.

Ikasketek edo golfak, zer du garrantzia gehiago?

Nire lehentasuna ikasketak dira. Normalean etxekolanak gaue-rako uzten ditut, eta entrenatzera joaten naiz. Hala eta guztiz ere, ikasketak garrantzitsua goak dira, nire gurasoek ere hori esaten didate.

Zertan oinarritzen da irabazi berri duzun American Dream ekimena?

Ikastetxe askoren artean matematika eta ingeleseko azterketak egin genituen; azterketan lehenago aipatutako arloetan nota hoberenak zituzten ikasleek parte hartu zuten. Espainia mailan, guztira, 2.400 pertsonak hartu zuten parte azterketan, eta horietatik hamabost pertsonak izan zuten beka lortzeko aukera.

Egin nuen azterketa ez zen ohiko azterketa izan. Dinamika batzuk landu eta geure buruaren aurkezpen txiki bat egin behar izan genuen. Nire ustez, hein handi batean, kurrikulumarengatik gidatu ziren. Azkenean, kirol arloko eta arlo akademiko sei pertsona aukeratu zituzten, hiruna bakoitzetik.

Ikasleen artean maila altua sumatzen zenuen?

Bai. Arlo akademikoko jendearekin txundituta geratu nintzen. Jende oso ona ikusi nuen, jendaurrean hitz egiteko izugarriko erraztasuna erakusten zuena. Batzuk, jada, zenbait proiektutan parte hartzen ari ziren. Kirol mailan ere maila izugarria zegoen. Espainiako txapelak irabazteko zeuden, esaterako.

Notatzen zenuen American Dream ekimenean? LaSalle Berrozpe, Batxilergo mailan, Duala izenekoa du. Batxilergo amerikarra eta hemengo uztartzea ahalbidetzen du. Ekimen horrekin duela bi urte

hasi ginen. Orduan, ikastetxeen artean deialdia egin eta nire izena eman zuten. W2A izeneko agentzia batek Amerikako Estatu Batuetara ikastera joateko unibertsitate bat bilatzen laguntzen dizu.

Nola sentitu zinen American Dream ekimeneko saria irabazi zenuenean?

Saria eman zidatenean ez nion garrantzia handirik eman, ez bainaiz asaldatzen den horietakoa. Bestalde, etxera joan nintzenean pentsatzen jarri nintzen, eta horrelako saria lortzea zerbait oso garrantzitsua izan zela iruditu zitzaidan.

Ikastetxeak nire izena eman zuen eta azterketan aurrera egin zuten nuen; nire hoberena eman nuela uste dut eta, azkenean, horren preziatua den saria lortu nuen.

Etorkizunera begira zer egingo duzun ba al dakizu?

Oraindik ez dakit. Estatu Batuetako unibertsiterako sarbide azterketa (SAT) egin behar dut, baita Unibertsitatera begira ingeles maila neurtzeko azterketa ere (TOF). Aurrerago, unibertsitateetara bidaltzeko idazlan bat idatzi beharko dut, neure burua aztertzeko. Esandako guztiaren ostean, unibertsitateek euren ikastetxea aukeratzeko eskaintzak egiten dizkiete ikasleei.

Etorkizunera begira, proiekturik ez dudan arren, ingenierritzaren bat ikastea gustatuko litzaidake. Baina oraindik ez dakit zein motatakoa. Golfari dagokionez, berriz, ez daukat ezer pentsatuta. Batez ere, entrenatzen jarraituko dut, eta aurrerago ikusiko dut hobetzen dudanez edo ez. Golfean adin garrantzitsua nire da (16 urte), maila handia lortzen duzu edo bertan geratzen zara.

American Dream beka onuragarria izango da, etorkizunera begira.

Nik uste dut baietz. Azken finean, Amerikako Estatu Batuetan ikasteko aukera izatea izugarria da. Esan didatenez, ingelesak izugarriko garrantzia du eta horrelako leku batean egoteak maila handiagoa duzula erakusten du. Gainera, Estatu Batuetan kirolari diren ikasleentzat sustengu ikaragarria dago.

Horrez gain, ekonomikoki izugarriko bultzada ematen du beka eskuratzeko. Bekarik gabe, kanpora ikastera joatea oso zaila da.

Leitzaran eta Berastegi aldeko bideetan barrena

MENDIKO BIZIKLETA Urnietako Zanpatuz mendi elkarteak irteera antolatu du, igande honetarako. Goizeko 08:00tan abiatuko dira San Juan plazatik, 40 kilometroko ibilbideari ekiteko. Lau ordu inguruko irteera izango da, bizikleta gainean

Erredakzioa URNIETA
Urnietatik abiatu eta Leitzaran aldera gerturatuko dira, handik Berastegiko San Lorenzo aldera jotzeko. Antolatzaileen arabera, irteeraren zailtasuna "ertaina-altua" da. Ibilbidean zehar pila-tuko duten desnibel positiboa mila metrokoa izango da. Kasu honetan, parte hartzeko gutxie-neko adina 18 urtekoa izango da. Janaria, edaria eta neguko arropa (eguraldiaren arabera) eraman beharko dute. Eta baita bizikleta aurretik errebisatuta edukitzea ere (frenoak, kan-bioak...), bidean ezustekorik izan ez dadin.



lazko azaroan irteera egin zuen Zanpatuz elkarteak. AIURRI



Trebaketa jarduera polita

ESKALADA Astelehen arratsaldean eskaladan murgiltzen hasteko tailerra antolatu zuen Zanpatuz mendi elkarteak. Santa Barbaran aritu ziren, eguraldia lagun zutelarik. Hasiberrientzat eta ordura arte eskaladan murgilduta ez zeudenentzat aproposa izan zen. Dozena bat lagun hurbildu ziren Zanpatuzen hitzordura. Giro onean aritu zirela adierazi diote Aiurri.



ZANPATUZ

KARTELDEGIA: EMAITZA, SAILKAPENA, ORDUTEGIA

FUTBOLA		
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA		
Euskalduna-Anaitasuna		0-3

SAILKAPENA		
1	Urola	15 puntu
9	Euskalduna	8 puntu

NESKAK, ERREGIONALA		
Urniet-Urola		2-3

SAILKAPENA		
1	Arizmendi	15 puntu
11	Urniet	1 puntu

ERREGIONAL PREFERENTE		
Kostkas-Urniet		1-0

SAILKAPENA		
1	Vasconia	15 puntu
14	Urniet	5 puntu

1ª ERREGIONAL MAILA		
Axular-Euskalduna		1-3

SAILKAPENA		
1	Usurbil	15 puntu
3	Euskalduna	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
17:30	Euskalduna-Usurbil / Lar, 26	

PREFERENTE NESKAK		
Euskalduna-Intxaurdi		1-0

SAILKAPENA		
1	Añorga	12 puntu
2	Euskalduna	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
15:30	Euskalduna-Orioko / Lar, 26	

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA		
Beti Gazte-Euskalduna		0-2

SAILKAPENA		
1	Euskalduna	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
17:30	Euskalduna- S. Tomas / Lar, 26	

JUBENILEN 1. MAILA		
Euskalduna-Urniet		2-2

SAILKAPENA		
2	Urniet	13 puntu
5	Euskalduna	8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
18:00	Urniet-Danena / Lar, 26	

KADETE, A MAILA		
Billabona-Euskalduna		0-7
Urniet-Astigarraga		1-0

SAILKAPENA		
1	Euskalduna	15 puntu
5	Urniet	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
12:40	Euskalduna-Urniet / Lar, 26	

KADETE, B MAILA		
Orioko-Urniet		11-0

SAILKAPENA		
1	Santo Tomas Lizeoa	15 puntu
5	Euskalduna	3 puntu
6	Urniet	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
16:00	Urniet-Euskalduna / Lar, 26	

KADETE NESKAK		
Ostadar-Euskalduna		1-4
Usurbil-Urniet		2-0

ASTEBURUKO PARTIDAK		
11:00	Euskalduna-Usurbil / Lar, 26	
11:30	Urniet-Martutene / Lar, 26	

ESKUBALOIA		
EUSKADI, SENIOR MUTILAK		
Urniet-Ugeraga		32-30

SAILKAPENA		
1	Corazonistas	10 puntu
12	Urniet	2 puntu

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK		
Leizaran-Legazpi		28-23

SAILKAPENA		
1	Txingudi	8 puntu
3	Leizaran	6 puntu

GIPUZKOA, SENIOR NESKAK		
Legazpi-Urniet		19-24

ASTEBURUKO PARTIDA		
12:00	Urniet-Eibar / Ig, 27	

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK		
Leizaran-Egia		14-13

SAILKAPENA		
1	Urniet	6 puntu
3	Leizaran	5 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
12:30	Urniet-Elgoibar / Lar, 26	

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK		
Eibar-Urniet		47-20
Egia-Leizaran		15-25

ASTEBURUKO PARTIDA		
16:00	Urniet-Laubide / Lar, 26	
16:15	Leizaran-Pulpo / Lar, 26	

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK		
Amenabar-Leizaran		29-28
Urniet-Amenabar		30-21
Bera Bera-Leizaran horia		20-17

ASTEBURUKO PARTIDA		
17:45	Leizaran-Saieko / Lar, 26	
11:15	Leizaran Horia-Irun / Ig, 27	

GIPUZKOA, KADETE NESKAK		
Aiala-Leizaran		11-25
Elgoibar-Urniet		32-24
Leizaran Horia-Urniet I.M		19-10

ASTEBURUKO PARTIDA		
10:15	Leizaran-Elgoibar / Lar, 26	
17:30	Urniet-Aiala / Lar, 26	

ARETO FUTBOLA		
Euskalduna-Aurrera		7-2

SASKIBALOIA		
Aldapeta-Ganbara Juniorra		36-33
Ganbara Kadetea-Mondragon		36-86
Ganbara InfH-Askatuak		27-28
Ganbara InfT-TAKE		20-49

ASTEBURUKO PARTIDA		
09:00	Ganbara Juniorra-Ama / Lar, 26	

Aiztondo Klasikoa eskualdean antolatzen den afizionatu mailako lasterketa garrantzitsuena da. **AJURRI**

Txirrindularitzari buruzko jardunaldia

TXIRRINDULARITZA Andoaingo Txirrindulari Eskolak afizionatu mailako txirrindularitzari buruzko solasaldia antolatu du, larunbat honetarako. 17:30ean hasiko da Bastero Kulturgueko ekitaldian, eta ordezkaritza zabala iragarrita dago

Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotan, udazkena iris-tearekin batera, txirrindularitzari lotutako jardunaldiak antolatu dituzte. Oraingo honetan afizionatu mailako txirrindularitzaz arituko dira, bi orduz luzatuko den ekitaldian.

Txirrindularitzaren alor guztiak kontutan hartu nahi dituztenez, gonbidatuen zerrenda aberatsa da:

- Kirol zuzendariak: Mikel Gaztañaga (Laboral Kutxa), David Etxebarria (GrupoEulen), Galder Lasuen (Eibar Energia Hiria-Debabarrena), Juanjo Oroz (Equipo Lizarte), Javier García (Baque Cycling Team) eta Miguel El Rio (Caja Rural-Seguros RGA).

- Txirrindulariak: Xabier Azparrren eta Unai Iribar (Laboral Kutxa), Aritz Kortabarría (Grupo Eulen), Iñigo Etxarri (Eibar Energia Hiria-Debabarrena), Iñigo Altuna (Caja Rural-Seguros RGA) eta Oier Ibarguren (Baque Cycling Team).
- Epaileak: Miguel Etxezortu eta Unai De Miguel.
- Antolatzaileak: Beñat Urain (Valenciaga Oroitzarrea), Victor Martinez (Loinaz proba), Xabier Usabiaga (Aiztondo Klasika) eta Aitor Ayerza (Jose M^a Anzaren oroimenezkoa).
- Euskal Txirrindularitza Federazioa: Juan Luis Juarez.
- Ertzaintza: Jon Arruarte.
- Kazetariak: Arritxu Iribar (EITB) eta Joseba Iturria (Gara).

- Saioen gidariak: Saioa Oskar Ortiz de Guineak, Iñigo Larrañaga eta Felix Ugalde.

Eztabaidaren amaieran, afizionatu mailako euskal txirrindularitzaren garapenerako adierazgarriak eta baliagarriak izan daitezkeen ondorioak aurkeztuko dituzte. Ohar bidez, eskolak bere asmoaren berri eman du, “Eskualdean txirrindularitza bultzatzea dugu helburu; gazteen formakuntza baliatuz. Hori dela eta, txirrindularitzari buruzko laugarren jardunaldia antolatu dugu”.

Izena eman beharra dago

Doakoa da izen-ematea:

- info@andoaingo.eus.
- 650 641 228.



Oier Ibarguren.



David Etxebarria.



Xabier Usabiaga.

Julen Garcia, igande eguerdian jokatu zen partidari. **UKE**

Denboraldiko lehen garaipena lortu du Urnietako taldeak

ESKUBALOIA Igoera lortu eta gero, denboraldi berriko bosgarren jardunaldian iritsi da lehen garaipena

Erredakzioa URNIETA

Azken partidatan geroz eta gertuago antzematen zen garaipena, eta lehena joan zen igandeko partidari iritsi zen. Urnietako lehen taldeak garaipen estua lortu zuen (32-30), Ugeraga Bizkaiko taldearen aurka. Merezitako garaipena da, gogotik saiatzen ari baitira partida guztietan. Sailkapenaren behealdetik ateratzeko bi puntu garrantzitsuak dira.

Golak bata bestearen atzetik egiten ziren bi ateetan, bi taldeek hasiera zirrargarria osatuz. Urnietarrek, etxekoen babesa lagun, lau goleko abantaila lortu zuten. Gutxi iraun zien pozak, maila hauetan ezer gutxi barakatzen baita, eta atsedenaldira parez pare iritsi ziren (17-16).

Bigarren zatian antzeko gauza gertatu zen: Urnietarrek abantaila hartzen zuten, baina kontrara bizkaitarrek berdintzea lortzen zuten. Berrogeigarren minutuan berdintasuna nagusitu zen (20-20). Aurreko jardunaldietan azken minutuetan garaipenak ihes egin zien urnietarrei. Horren beldur ziren, baina ez zen horrelakorik gertatu. Azken bost minutuetara lau goleko abantaila zuen UKEk, eta nola edo hala eutsi egin zioten. Garaipena eskuratu arte.

Bigarren taldea ere garaile

Senior mailako bigarren taldeak Legazpin garaipen berria lortu zuen (19-24), eta bi puntu horiei esker sailkapeneko bigarren postuari eusten diote.

Beñat Senperena, denboraldi honetako partida batean. **UKE**

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Aner
Aner Arretxe
3 urte bete zituen
joan zen urriaren
12an.



ANDOAIN Maddi
Maddi
Urriaren 23an
hamar urte bete
zituen. Ondo
ospatu zenuelakoan.
Asko maite
zaitugu!
Etxekoak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean,
eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia
igotzen diren unetik, urtebetetze
egunera bitarte, ikusgai izango da
webgunean.

diseinua@aiurri.eus
Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 26 eta igandea 27
DIAZ: Kale Nagusia, 19.
943 592 057 Andoain.

URNIETA

Larunbata 26 eta igandea 27
ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea.
943 552 087 Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 25

ANDOAIN Ikastaroa

Defentsa pertsonalerako ikastaroak
Zumbalokura elkartearen egoitzan,
Kale Nagusian. Bertan informazio
osoa eskaintzen ari dira.
16:30-18:30, haurrentzat.
22:00-22:00, helduentzat.

ANDOAIN Lehiaketa

"Gomendatzen dizut..." bidaiei
buruzko lehiaketan parte hartzeko
azken eguna. 12-18 urtekoentzat.
Gazte Informazio bulegoa.

LARUNBATA 26

ANDOAIN Ikastaroa

Defentsa pertsonalerako ikastaroak
Zumbalokura elkartearen egoitzan,
Kale Nagusian. Larunbatean eta
igandean ordutegi berdinean.
09:00-18:00, helduentzat.

ANDOAIN Ikuskizuna

Andoaingo erraldoi eta buruhandien
konpartsaren kalejira.
17:00, herrigunean zehar kalejira.

IGANDEA 27

URNIETA Ospakizuna

Beterri-Buruntzako eta Toloserriko
odol-emileen bilkura. 13:15etan
harrera egingo zaie odol-emaleei, eta
13:30ean domina banaketa. Aurten,
ehun aldiz odola eman duten Begoña
Vicente urnietarra eta Joxe Mari Tolosa
andoaindarra omenduko dituzte.
14:30, bazkaria Oianumen.



Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria. LEZOKUDALLIBURUTEGIA

URNIETA Ipuin kontaketa saioa

Ipuin kontaketa saioei tarte
zabalagoa ematea erabaki du
Urnietako Udalak.

Oraingoan eskarmentu handia duen
Ixabel Agirresarobe hurbilduko da.
17:30. Ostirala, 25. Ludoteka.

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Aigua" ura ardatz duen dantza
ikuskizuna, familia osoari eskainia.
17:00, Bastero. 4 euro.

ASTELEHENA 28

ANDOAIN Ikastaroa

Batukada feministaren saio berria.
Azaroan eta abenduan hiru hitzorduko
gehiago antolatuko dituzte.
19:00-21:00, Gazte Lokala.

URNIETA Tailerra

Udalak herritarrei zuzenduriko tailerra
antolatu du, Paisaia planari loturikoa.
Plana amaitu aurretik, azken
ekarpenak jaso nahi dituzte.
19:00, Lekaio.

ASTEARTEA 29

ANDOAIN Tailerra

Energiaren fakturan aurrezteko,
Udalak eta Aldundiak antolatuta.
18:00, Basteroko ekitaldi aretoa.

ANDOAIN Solasaldia

"Zure hatzaren ez galtzeko"
literatur solasaldia, Itxaro Bordarekin.
19:00, Basteroko bilera gela.

OSTEGUNA 31

URNIETA Jabekuntza eskola

Izena emateko epea amaituko da.
Lehen bi ikastaroak: Autodefentsa
feminista eta hilekoaren zikloa.
Info: Lekaio, Bertan, Urnieta.eus.

ZINEMA



ZINEMA

URNIETA

Asterix: Edabe magikoaren sekretua
Ig, 27: 17:00.
4 euro.

ANDOAIN

Abuelos

Lar, 26: 19:30,
22:00.
Ig, 27: 19:30.
Astl, 28: 19:30,
22:00.



SINOPSISIA



Asterix: Edabe magikoaren sekretua

Zuzendariak: Alexandre Astier, Louis Clichy. **Herrialdea:** Frantzia
(2018). **Generoa:** Animazioa. **Iraupena:** 86 min. **Hizkuntza:** Euskara.

Denboraldi berria Urnietan

Zuhaitz batetik bestera
dabilela, halako batean,
Panoramix druida lurrera erori
da. Han etzanda hausnartzen
hasi da. Orkatila bat bihurritu
du, baina askoz okerragoa izan
zitekeen! Berak ezin balu, nork
prestatuko luke neurrigabeko

indarra ematen duen edabe
magiko garrantzitsua?
Asterixek eta Obelixek
lagunduta, Galia osoan zehar
bidaiautuko du druida trebe
baten bila, hari edabe
magikoaren errezetaren
sekretua helarazteko asmoz.

Paisaia planari lotutako tailerra

Urnietan paisaia plana lantzen ari dira, Trankaxko erreka
igarobidea hobetzeko helburuarekin. Jarduera ezberdinak antolatu
dituzte, eta herritarren artean galdeketa egin dute. Urriaren 28an,
19:00tan hasita, Urnietako Udalak Lekaion tailerra egingo duela
iragarri du: "Plana amaitu eta aurkeztu aurretik azken ekarpenak
jasotzeko".



Egitasmoa abiatu da. AIURRI

Gipuzkoa osoko ikasleak Leitzaran haranean

Aldundiak mugikortasuna sustatzeko egitasmoetako bat Leitzaran Bisitarien Etxean kokatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa departamentuak, Leitzarango Bisitarien Etxearekin batera, mugikortasuna sustatzeko ekimena abiarazi du. Ekimenaren helburu nagusia "bizikletaren erabileraz populazioa sentsibilizatzea da".

Ikasleei zuzenduta dago, eta Andoaingo naturbidean bertan bi jardueretan parte hartzeko aukera izango dute: Bizikletan txangoa egingo dute eta, bestalde, bizikletak konpontzeko tailer batean parte hartuko dute.

Parte-hartzaileak Gipuzkoako osoko ikastetxeetako ikasleak izango dira, Derrigorrezko bigarren hezkuntza mailakoak edota Batxilergokoak. Aldundiak ohar bidez adierazi duenez, herrialdeko 69 ikastetxerekin harremanetan jarri dira: "Dagoeneko hirurehun ikasle inskribatu dira, baina plazak irekita daude oraindik eta erre-serba egiteko zuzenean jarri behar da harremanetan Leitzarango Bisitarien Etxeko arduradunekin".

Egitasmoan parte hartu duten lehen ikasleak Amasa-Villabonakoak dira. Joan zen ostiralean izan zen, eta bertara Aldundiko eta Udaldeko ordezkariak hurbildu ziren.



Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, artxiboko irudian. AIURRI

Andoaingo herriaren ondare den konpartsa

Andoni Alonso Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsako kide da. Urteak daramatza konpartsako kide izaten, eta larunbat arratsaldean herrian barrena erakustaldia egingo dute

Mikel Arberas ANDOAIN

Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsak urte asko daramatza herria eta auzoak alaitzen; horrez gain, herriko ondare garrantzitsua da. Azken urteetan, adin ezberdinetako jendeak hartu du konpartsaren gidaritzia lana.

Andoni Alonso konpartsako kideak adierazi duenez, erraldoi eta buruhandien kudeaketa 8-10 pertsonen artean egiten dute. Buruhandiekin parte hartzen dutenak, bestalde, dozena bat gazte dira. Helduagoak direnek erraldoiekin entseatzeko dute. Gazteenak, berriz, buruhandiak jantzita umeeekin jolasean ibiltzen dira.

Emanaldiei dagokionez, bi mota bereizten dira: batetik,

Udalarekin hitzartuta dauzkatena. Eta, bestetik, zenbait hitzordu berezietan, hala nola, Korrika herritik igarotzen denean edota Euskaraldian.

Hitzarmenaren barruan, konpartsak hiru irteera egiten ditu: Inauterietan, Santakruzetan eta San Juan jaietan. Entseguen egutegia ezinbestekoa dela nabarmendu nahi izan du konpartsako kide den Alonsok. Konpartsa erakustaldia egin baino hilabete eta erdi lehenago hasten dira entseguenkin: "Entseguak ordubete irauten du, eta lau dantzak praktikatzen ditugu. Erraldoiek duten pisua kontuan hartzeko eta barruan dagoena seguru sentitzeko beharrezkoa da entseatzeko". Asteartetan elkartzen dira, gaueko 21:00etan.

Saioez gain, erraldoi eta buruhandien mantenu lanetaz arduratzen dira. Figurak Udalarenak izan arren, konpartsako lantaldeak bere gain hartzen du zaintza lana.

Erraldoi eta buruhandien konpartsa elkarte bilakatzeko lanean ari dira, urte osoko mar-txa modu egokiagoan eraman ahal izateko.

Larunbat arratsaldean, saio berezian, Andoaingo kaleak alaituko dituzte.

**LARUNBAT
ARRATSALDEKO
KALEJIRA 17:00TAN
ABIATUKO DA
GOIKOPLAZATIK**

Pertsonaia historikoetan oinarrituta

17:00tan Goikoplazan ikusgai egongo dira Erraldoiak eta buruhandiak. Ondoren, Konpartsa kalejiran abiatuko da Juanita Alkain plazan, Zubiaurren, eta Zumea plazan geldialdiak eginez. Erraldoi eta buruhandien konpartsa dultzaineroak lagunduta ibiliko da. Bidean zehar, Aitor Mendiluze bertsolariak idatzitako bertsoak abestuko dituzte.

Andoaingo konpartsa egiteko garaian bi gai nagusi hartu zituzten: Pertsonaia historikoak erraldoien kasuan (Juan Legarra eta Cecilia Legarra, Azelaingo bikotea), eta Trentxikiko lanbideak buruhandien kasuan (mehatzaria, olagizona, ikazkina, estraperlista, makinista, geltokiko nagusia eta arrieroa).